

BERMEO / Toti Martinez de Lezeak hitzaldia emango du

'Sorginak mitologiaren kontra' bere liburua aurkeztuko du, 19:30ean, liburutegian

M. Zabalondo

Toti Martinez de Lezea idazle gasteiztarrak hitzaldia emango du, gaur, 19:30ean, liburutegian. Bertan, Sorginak mitologiaren kontra bere liburuaren aurkezpena egingo du.

Idazlea sarritan egon izan da Bermeon, hainbat taldek gonbidatuta. Oraingo honetan, Liburu Azoka dagoela aprobetxatuz, Martinez de Lezeak bere liburuaren berri emango du.

Hitzaldia amaitu ostean, idazlea prest egongo da nahi duenari bere liburua sinatzeko.

Gasteiztarraren liburuak

Liburu Azokan Toti Martinez de Lezearen hainbat liburu aurki daitezke: berriak eta zaharragoak. Gaur hemen izango dela aprobetxatu, interesdunek bere liburuaren gaineko edozein galdera egiteko aukera izango dute.